

Kanpo merkataritzaren defizita handitzen ari da Frantzia

Munduko laugarren merkatal potentzia izaten segitzen du ordea

Kanpo merkataritzari dagokionez, Frantzia gaizki doa eta joan zen urteko 50.100 milioi liberako defizitak (902.000 milioi pezeta) gora egin behar luke aurten, Frantziako Finantza Ministeritzaren arabera. Hala ere, Frantziak munduko laugarren tokiari eutsi dio kanpo merkataritzari begira.

M. ESTEBAN / BAIONA

Azken bost urteotan, Frantziako kanpo merkataritzaren defizitak gora egin du. 1986an positiboa izan zen baina 1987an hasi zen defizita: 31.600 milioi liberakoa (568.800 milioi pezeta). Aurten 50.100 milioi libera baino handiagoa izango litza-teke. 1990. urteko inportazioak 1.126.000 milioi liberakoa (20.270.000 milioi pezeta) ziren eta esportazioak 1.176.200 milioi liberakoa (21.170.000 milioi pezeta).

Joan zen urtean, Frantziako esportazioak Barne Produktu Gordi-naren % 22,7a iritsi zen. Frantziako kanpo merkataritzak ekonomiaren zati handi bat betetzen eta beteko du,



Kanpo merkataritzako defizita handituz doa 1987az geroztik.

Europako Akta Bateratuarekin, kanpo merkataritzak garatu behar bait luke. Oraindik, Europako Komunitatearekin Frantziak bere sa-le-rospen gehienak egiten ditu: kanpo merkataritzaren orokorretik % 60.

BALANTZE POSITIBOA ESPAINIAREKIN Europako herrien arteko truketzei dagokienaz, joan zen urtean, Frantziako merkatal balantze positiboa zen Suitzarekin (16.600.000 milioi libera - 298.800.-

000 milioi pezeta), Britainia Handiarekin (15.200.000 milioi libera - 273.600.000 milioi pezeta) baita ere Espainiarekin (12.900.000 milioi libera - 232.200.000 milioi pezeta).

Frantziak industria handiko herriekin zuen defizitak jarraitu behar luke aurten. Iaz, defizita handia bazen Alemaniarekin (40.200.000 libera - 723.600.000 milioi pezeta), Estatu Batuekin (33.600.000 milioi libera - 604.800.000 milioi pezeta) eta Japoniarekin (28.900.000 milioi libera - 520.200.000 milioi peze-ta).

Azpinarra daiteke kanpo merka-taritzaren barnean, industriarekin defizita dagoela. Industriaren kanpo trukeak, kanpo merkataritza oroko-retik % 80 egiten du. Sail honen de-fizita 85.400.000 milioi liberakoa da. Zorionez, zerbitzuak bereziki, ondo doaz eta positiboak dira, esporta-zioaren bidez, 36.600.000 milioi li-bera irabazten bait dira. Zerbitzu sailean, turismoa eta diru inbertsioa izan ziren parte nagusiak.

Mundu mailako esportazioei da-gokienaz, Frantziak laugarren tokia du, Estatu Batuak, Japonia eta Ale-manian ondoren. Frantziak munduko komertzio orokorretik % 6 egiten du.



Felipe Gonzalez.

Kontrol parlamentaria hilean behin egingo du Gonzalezek

MADRIL

Felipe Gonzalez hilabetean behin agertuko da Espainiako Diputatuen Kongresuan Gobernuaren ekintzei buruz erantzuteko. Legebiltzarreko iturri sozialistek jakin erazi zutenaz, Gonzalez alderdi politikoetako bu-ruek soilik itaun egiten dutenean azalduko da Legebiltzarrera.

Diputatuen Kongresuko Mahaiak erabakiko du Gonzalezek erantzun beharko dituen gaiak, baina lehen-tasuna izango dute garrantzi politiko handiko arazoak. «Gai garrantzitsu» hauen artean «drogaren aurka Go-bernuak hartu beharreko neurriak» izango dira, besteak beste, PPK asko-tan Gonzalezi eztabaida horretan partehartzeko egin duen eskakizu-nari erantzunez. Felipe Gonzalezek kritika ugari entzun behar izan du azkenaldian oposizio eskuindarreko aulkietatik, legegintzaldi honetan hiruzpalau alditan bakarrik agertu delako.

Mitterranden aholkulari ohia Pechiney kasuan nahasturik

PARISE

François Mitterrand Frantziako lehendakariaren aholkulari izan zen Alain Boubill epaituko dute aurki, Gobernuan zegoenean enpresei abantailazko informazioa pasatzea-gatik. Atzo jakin erazi zenez, Alain Boubdilek, Pierre Beregovoy Eko-nomi ministroaren gabineteburu ze-nean, igorri zien isilpeko informa-zioa Triangle enpresa amerikarreko akzioak erosi nahi zituztenei. Ustez emandako informazio hori eman eta berehala, Pechiney enpresa frantzia-rrak Triangle erosiko zuela esan zu-en. Akzioak erosi zituztenek irabazi handiak izan zituzten.

«Pechiney kasua» izenez ezagu-tzen den afera honetan, jadanik ha-maika dira errua egotzi dietenak. Hauen artean, Roger Patrice Pelat eta Max Theret daude, ustez Alain Boubilletik informazioa jaso bait zuten. Mitterranden aholkulari ohiak Kortsikan zegoela jakin zuen ak-zioen salerosketaren berri, bertan Triangle eta eta Pechineyko burue-kin egon zelako.

PPk ez du onartuko autonomiek PFEZari gehigarriak ezartzea

MADRIL

PP alderdia agintean dagoen au-tonomi elkarteetako Ekonomia eta Hazienda kontseilariak baztertu egin dute, Pertsona Fisikoen gaineko Errenta Zergari (PFEZ) autonomi elkarteek inolako gehigarriarik ezar-tzea. Aldi berean, zergen igoeraren aurkako jarrera hartu dute, atzo au-rraz aipaturiko alderdiak zabaldua-ko oharrean azaltzen denez.

Bide honetatik, Aragon, Balears, Cantabria, Castilla y Leon eta Gali-

ziako ekonomi arduradunek, euren ezadostasuna agertu dute Carlos Soltxaga Espainiako Ekonomia mi-nistroak herenegun egindako adie-razpenekin. Kontseilari hauen ustez, Soltxagak esandakoek «argi eta gar-bi uzten dute Administrazio zentra-lak ez duela gaitasunik arazoei aurre egiteko».

Azkenik, autonomi elkarteek zer-ga sistemaren inguruan sortutako arazo eta eztabaidak gainditzeko, eredu berri bat eskatu dute popula-rek.



Oscar Ribas Andorrako Gobernu buruak zentsura mozioa gainditu zuen. CARNE

Zentsura mozioa aurkeztu zuten Andorrako gobernuburuaren aurka

ANDORRA LA VELLA

Andorrako Consell Generalek (Legebiltzarra) atzera bota zuen atzo Oscar Ribas gobernuburuaren aur-kako zentsura mozioa. Alderdi poli-tikoak debekaturik dauden herrialde txiki honetako oposizioak gehiengo du Legebiltzarrean, baina ez zuen lortu gobernuburu kargutik bota-tzeko beharrezkoa den gehiengo, bi heren alegia. Oscar Ribasen Gober-nua kanporatu ez duen arren, oposi-zioak guztiz gelditurik dauka Kata-luniako iparraldean kokaturik da-go-en estatu independentearen bizi-tza politikoa. Erdi Arotik manten-tzen diren zenbait legeren aldaketa

arautuko duen Konstituzioa Lege-biltzarrean mantentzen da oposizioa aurka dagoelako.

Consell Generala osatzen duten hogeitazortzi legebiltzarkideetatik, hamaseik zentsura mozioaren aldeko bqtoa eman zuten. Boto hauek ez zi-ren nahikoak izan, Gobernu burua botatzeko emerretzi boto beharrez-koak direlako. Oscar Ribasen alde dirautenak hamabi boto zenbatu zi-tuzten. Conseller edo parlamentariak zerrenda irekitan hautatzen dituzte Andorrako hiritarrek. Duela zortzi hilabete, Ribasek gehiengo galdu zuen Legebiltzarreko lehendakari-tzarako aurkeztu zuen Miquel Alei-xek porrot egin ondoren.

NATOk 5.000 soldadu espainiar izango ditu bere agintepean

DONOSTIA

Espainiak bost mila soldadu utziko ditu NATOren agintaritza zuzenaren pean. NATOk he-rrialdeetako estatuburu eta gober-nuburuarekin batera partaide den gailurrean iragarriko du Felipe Gonzalezek erabakia. Praktikan, espainiar Gobernuaren erabakiak NATOren egitura militarrean sartzea ekarriko du.

Soldadu espainiarrak Veronan (Italia) egoitza duen Erantzun Azkarreko IV taldean sartuko di-ra, Lansouth izenez ezagutzen

den NATOren adarrean. Adarra italiar militar baten agintepean izango da, Turkia, Grezia eta Portugaleko ofizialen laguntza-rekin. Espainiak NATOk egitu-ra militar bateratuan parte hartzen ez duenez, ez da ofizial espainia-rrik izango Veronan. «Praktikan, honek ez du garrantzi handirik, operazioen bat erabaki aurretik Espainiari bere lankidetzat eska-tzen zaiolako. Espainiak horre-tara ukatzeko eskubide osoa du, baina hori pentsaezina da aliatuen artean» adierazi dute diplomazioa espainiarreko iturriek.